

**ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA BERRIZ HASTEA ETA AMAITZEKO DATA
BERRIA EZARTZEA****Zerbitzu-eginkizun deialdia eta klase-orduen 1/3ko murrizketak
baimentzea osasun arrazoiak direla eta**

COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko, alarma-egoera deklaratu duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak, martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuaren 1. artikuluko laugarren paragrafoak aldatua, epe-mugak eteteko eta administrazio-epeak geldiaraztea agintzen zuen.

Etetea eta geldiaraztea 2020ko martxoaren 14tik aurrerako ondorioekin erabaki zen, egun horretan deklaratu baitzen alarma-egoera. Beraz, eskabideak aurkezteko epea aipatutako egunean gelditu zen, eta 7 egun natural falta ziren epea amaitzeko.

2020ko maiatzaren 23an, Diputatuen Kongresuaren 2020ko maiatzaren 20ko Ebazpena argitaratu zen, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma-egoera luzatzea baimentzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena. Ebazpenaren hamargarren atalean honako hau ezartzen da: "2020ko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin, indargabetu egingo da administrazio-epeak eteteari buruzko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria. Data horretatik aurrera, etenda geratu diren epeen zenbaketari berrekingo zaio, edo berriz hasiko da, arau batean hala aurreikusitakoa".

Aurreko guztiagatik, eta 2020ko maiatzaren 20ko Ebazpenari jarraituz, dokumentu honen bidez jakinarazten dugu **eskabideak aurkezteko epea berriz hasiko dela 2020ko ekainaren 1ean, 8 egun naturaleko epean, eta eskabideak aurkezteko azken eguna 2020ko ekainaren 8a (barne) izango dela.**

Vitoria-Gasteizen, 2020ko maiatzaren 25ean
En Vitoria-Gasteiz, a 25 de mayo de 2020

Jon Agirre Huerga

Langileak Kudeatzeko Zuzendaria / Director de Gestión de Personal

